

**Eskaerak
ukatu
dizkiete**

Larrañagaren
familia «larri» ▶ 5



Harpidedunei banatua ▶ Asteartea ▶ 2005-03-15 ▶ III. urtea ▶ 557. zenbakia

Gaur gaueko ordu txikietan helduko da Korrika Tolosaldera

ORDUA ▶ Ikaztegiara 02:12an iritsi eta 04:35ean alenduko da Adunatik; igandean Leitzan izan da

TXIKIAK ▶ Arratsaldean Korrika Txikiak izango dira; gogoan izango dira euskaldunberriak ▶ 2-4

IBARRA ▶

Irabazten joan ondoren, berdinketa

Epaileak gol bat balio gabe utzi zion Ibarri ▶ 6

LEITZA ▶

Euskal presoekin borrokarekin elkartasuna

Manifestazio isila izan zuten igandean, itxialdiarekin bat ▶ 7



Amezketan hamaiketakoa egin zuten igande eguerdian, Korrika Batzordeak antolatuta. NOELIA LATABURU



Aldatu zure enpresa Euskaltelera
eta eskuratu Nokia 6230 bat

1 €-ren truke

Eta, gainera, **% 50** eko deskontua lehen hiru hilabeteetako fakturan.

Aukera itzazu **0** €-ren truke deitzeko eguneko 4 ordu.

*Hilko kuota: 10 €.

- Bluetooth-a.
- Argazki-kamera.
- Kikoretako pantaila.
- Soinu polifonikoak.

Telefono mugikorrako estabuko operadore batetik datuzen bezeroen aintziaz balio du sustapenak, hilaren 19€-ko gubierneko kontsumo eta 18 hilabetez baje ez emetako konpromisoa hartu duten Enpresentzako Kontratu Libre eta Negozio Kontratuak duten bezeroentzat da sustapena. Egindako kontsumoari aplikatuko zaio deskontua, tarifa bereziko zenbakiartarako deialak, sare adimendunekoak eta nazioarteko roaming-ekoak aintzat hartu gabe. Sustapen mugatua: 100 unitate.

ESKATU INFORMAZIOA



San Frantzisko ibiltokia 19, behea
20400 - TOLOSA
Tel.: 943 69 81 26
Fax: 943 69 82 82
E-mail: tolosa@datavi.com



en Banatzaile Ofiziala

KORRIKA 14 ▶

Korrika, ordu txikietan

Gaur gauean helduko da Korrika 14 Tolosaldera; ikaztegietatik 02:12ean sartuko da lehendabizi, eta Adunatik aldenuko da, 04:35ean; igande goizaldean pasatu zen Leitzatik, harrera beroa izan zuen



Igande goizaldean, 03:30ak pasata heldu zen Korrika 14 Leitzara; Goizueta aldetik etorri, eta Uitzit aldera hartu zuen Korrikak. JAIONE ASTIBIA

IRATXE ETXEBESTE LEIRE MONTES

Inoizko Korrikarik luzeena omen da aurtengoa. Hilaren 10ean Orreagatik irten eta 20an Bilbora iristen den arte, 2.350 kilometro egingo ditu Korrika 14-k Euskal Herrian zehar. Leitzatik larunbat gauean, edo igande goizean, 03:30ean zen pasatzekoa; baina atzerapenez heldu zen azkenean.

Goizueta aldetik, Kaxetatik iritsi zen Korrika herri sarrerrara. Jende mordoan zen ordurako bertan, euskararen aldeko lasterketaren zain. Txandaka, herritarrek eraman zuten lekukoa. Leitzako Udalak Karrape irratira egindako deialdiari erantzunez, herritar batek hartu zuen testigua lehenik —lekukoek adierazi dutenez, gizon hura izan zen irratira deitu zuen bakarra—. «Aldarrikapen kilometroa» egin zuen, *Ikurrina gurea* eta *Alde hemendik* bezalako leloak soinean zituela, eta herriko preso Igor Astibiaren aldeko pegatinek.

Herriaren erdian, Askatasunak hartu zuen lekukoa Astibiaren anaia Egoitzek eraman zuen. Eta hark Karrape irratikoei pasatu zien txanda. Ohi bezala, irratiz egin zuten deialdia. Karrapekoek: deitutako guztien artean zozketa bidez aukeratu zuten testigua eramango zuena. Leitzatik, Uitzirako bidea hartu zuen Korrikak, eta jarraian Aresoko Udalak eta Guraso Elkarteak erdibana erositako kilometroa bete zuten herritarrek, lekukoa Uitzikoei eman aurretik.

Oso koloretua izan zen larunbatetik iganderako gauean Korrikaren harira sortutako giroa. Hotz handia egin zuten (0,2°), eta saltoka egin zuten lasterkaldia euskaltzaleek. Batzuek tabernatik atera eta zuzenean egin zuten bat korrikalariekin, eta besteek esnatu berritan ekin zioten lasterka egiteari. Batzuen eta bestearen artean, euskararen aldeko aldarrikapen oihuekin bete ziren herriko kaleak.

KORRIKA-KO KILOMETROAK EROSI DITUZTENAK ▶ ORDUAK ETA LEKUAK

Baliarraingo Udala. 02:12, Eredu lantokia.
Ikaztegiak. 02:19, Ederfilen pabilioiaren parean.
Panelfisako langileak. 02:25, 8. kilometroko seinalea.
Alegiako Udala. 02:29, Panelfisaka enpresa pasatuta.
Alegiako elkarteak. 02:32, 9. kilometroko seinalea (Aldabako bidegurutzea).
Alegiako ikastetxeak. 02:35, Alegiako anbulategia.
Amezketako taldeak. 02:38, Tonto kale amaiera.
Amezketako elkarteak. 02:41, Txintxarri pareko zubiaren hasiera.
Amezketako gazteak. 02:43, bariante alderako zubi-tunelaren amaiera.
Kazkabarra aisialdi taldea. 02:45, Alegiatik barianterako irteera.
Oargi elkarteak. 02:51, Artzabaltzako aparkalekua.
Galtzaundi Euskara Taldea. 02:58, bariantetik Tolosarako lehen sarreran, goiko stop seinalea.
Amaroz auzo elkarteak.

03:00, Benta Aundin, bi karrilak hasten diren lekuan.
Udaberri dantzari taldea. 03:02, etxe bakarraren parean.
Aitzol Udal Euskaltegia. 03:04, trenbide ondoko pareta bukatzen den lekuan (Ibaiaren beste aldean frontoia dago).
TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA. 03:06, Eroskiko zubia.
Hirukide ikastetxea. 03:08, Ernio inmobiliaria.
Tolosako Udala. 03:11, Nafarroa etorbidearen hasierako okindegia.
Tolosako EAJ. 03:12, Aneka lurrindenda (Nafarroa etorbideetik dator, lehen pasaldia).
Belauntzako Udala. 03:13, Ibarra sarrerako paper-fabrika.
Hauspoa kultur elkarteak. 03:16, San Inazio auzoaren hasieran, norabide debekatua seinalea.
Uzturpe ikastola. 03:18, Ibarako Kutxa.
Raku taberna. 03:20, San Kosme klinika.
Orixe ikastetxea. 03:22, Mescal taberna.

Tolosako LAB. 03:24, Gernikako Arbolako semaforoa.
Laskorain ikastola. 03:26, Zubi Berriaren hasiera (Foruen etorbideetik dator; bigarren pasaldia).
Samaniego ikastetxea. 03:28, Santa Klara komentuariaren hasieran.
Tolosako HHI-EPA. 03:29, bialean, Santa Maria elizaren parean.
Udaletxeko langileak. 03:30, bialeko zubia baino aurrerago.
Tolosako ezker abertzaleak. 03:32, Belaten, Jesusen Zerbitzarien parean.
EHNE eta EBEL. 03:34, erreka ondoko burdinezko hesia bukatzean.
Anoetako Udala. 03:37, Hernialdeko bidegurutzea.
Kuku elkarteak. 03:40, Anoeta Karrozeria.
Anoetako ikastola. 03:43.
Anoetako taldeak eta elkarteak. 03:46, errepede bukaeran.
Irurako Udala. 03:50, Irura-Anoeta-Tolosa bidegurutzea, zubi amaiera.

Irurako elkarteak. 03:56, Euskal Forging baino lehenago.
Villabonako Udala. 04:03, Irurako gasolindegiko utzi bidea seinalean.
Zunbeltz. 04:06, Amasako bidegurutzea.
Iratzar. 04:09, eliza parean.
Gaztetxea. 04:12, zinema aurreko semaforoa pasatu eta berehala.
Zizurkilgo Udala. 04:15, Villabona eta Zizurkil arteko zubi amaiera.
Ziortza elkarteak. 04:19, Marie Brizard-en parean.
Asteasuko eskola. 04:22, Adunarako bidegurutzea.
Adunako Udala. 04:25, Adunako aldapan gora dagoen laugarren argi postea.
Adunako Guraso Elkarteak. 04:29.
Muxkil elkarteak. 04:32, hilerri inguruan, ezkerretara dagoen gurdibide ondoan.
Txulobi elkarteak. 04:35, Andoain alderako bidegurutzea.
Andoaingo kirol elkarteak. 04:38, Inquitex sarrera.

Ordu txikietan,
korrika txikian
euskararen alde




Tolosako Udala



Euskara Batzordea

KORRIKA 14
ORREAGATIK BILBORA
EUSKARA
AHOTIK AHORA



Alegiako Udala

Orexako
Udala
korrikarekin





Muxkil elkarteak antolatuta, afari txistosoa egin zuten Adunan. HITZA

HITZA, Korrikarekin

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkariak Korrika lagun-duko du aurten ere, eta 14. edizioa ibilbidearen kilometro bat erosi du, beste gizarte eragile, talde, elkarte eta erakunde askok bezala, euskara normalizatzeko bidean lanean. Gaur gauean, 03:06ean, Korrikaren 1.282. kilometroan hartuko du lekukoa Tolosan,

Korrikaz gain, ekimen horren alde herri batean eta beste antolatzen dituzten ekitaldiak askotarikoak dira: antzerki emanaldiak, bertso afariak, kontzertuak... Adunan, esaterako, Korrikaren aldeko afari txistosoa antolatu zuen Muxkil elkarteak joan den larunbatean. 37 lagun bildu ziren Guillermo Segurola txiste kontalariaren saioan.

Amezketako Korrika Batzordeak antolatuta, hamaitakoa egin zuten igandean amezketarrek. 10 euroren truke, soberan izan zuten jan-edana hitzordura bildutakoek, eta bazkalordura bitarte giro ederrean izan ziren, eguraldiak ere lagundu egiten zuen eta.

Tolosaldetik, gaur gauean

Idiazabaletik Beasainera bidean dela emango ditu Korrikak asteazkeneko lehen pausoak. 23:36ean sartuko da Idiazabaleran, eta 00:27ean helduko da Beasainera, antolatzaileek aurreikusitakoaren arabera. Ordiziatik eta Legorretatik igaro eta gero iritsiko da Tolosaldeara: Ikaztegiaren sartuko da, 02:12ean, eta Tolosatik (02:58)

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Tolosa. Zumalakarregi kalean, bezeroaren gustura guztiz eraberritutako ebebizitza salgai. 3 logela, 2 bainugela, sukaldia, egongela eta trastelekuarekin. Oso eguzkitsua. 609 804 886.

Eroskiko zubian, Aitzol Udal Euskaltegiaren eskutik. Ernio inmobiliaria parean emango dio lekukoa, 03:08an, Hirukide ikastetxeari. Euskaltzale guztiei bere kilometroan lasterka egiteko gonbita egiten die HITZAK. Hainbat herritan biharko HITZA eta pegatinak banatuko dira eta Korrikan eramatera gonbidatzen da. ◀

eta Villabonatik (04:06) pasatu eta gero. Zarautzerako bidea hartuko du Andoainetik, Lasartetik eta Astigarragatik barrera.

Korrikaren alde ekitaldi ugari antolatu dituzte eskualde herrietan, bestalde, egunotarako. Alegian, afaria egingo dute gaur, 22:00etan hasita, Intxurre elkarteak. Aftzera joandako guztiek Korrikarekin egingo dute bat lasterkaldia herrira heltzen denean. Ikaztegiaren ere gauza bera egin zuten giroa dira Korrikarako: afari legea egin zuten, hain zuzen ere. Herri-gintza elkartearen egin dute hitzordua, 22:00etarako.

Leku askotan txokolata jatea egingo dute gauerdik aurrera. Iruran, 02:30ean plazan, Gazte Alaiak elkarteak, Tolosan, 01:00etan Trianguloan eta Villabonan, Korrika pasatu ostean, 04:10ak aldean. Zizurkilgo Intxaur pilotalekuan Argia dantza taldearen *Pas de Basque* dantza ikuskizuna izango da, hilaren 19an, 20:00etan.

Bereziki omendu dituztenak

Korrika 14-k euskaldunberriak omendu nahi izan ditu; HITZAK Tolosaldeko eta Leitzaldeko aurpegi ezagun batzuren bila jo du

JOXEMI SAIZAR

Euskal Herria euskalduntzen, ni ere bai leloarekin, euskaldunberriak omendu nahi ditu Korrika 14-k, gure hizkuntza ikasteko eta erabiltzeko egin duten ahaleginagatik. Tolosaldean eta Leitzaldean badira ugari. Horietako aurpegi ezagun batzuk aukeratu ditugu bere esperientzia azaltzeko: non ikasi zuten, noiz, zergatik...

INAXIO AGIRRE

TOLOSA

«Euskaldun osoa izan nahi nuelako»



«Gurasoak euskaldunak dira, azpeitiarrak, baina beraienik sufritutakoa guk ez sufritzeko, txikitik ez ziguten euskara erakutsi. Deban jaio. Bergaran hazi eta 6 urte nituela Tolosara etorri ginen, aitaren lana zela medio. 18-19 urterekin serio hasi nintzen ikasten, euskalduna osoa izan nahi nuelako, zerbait falta zitaidala iruditzen zitaidalako. Agustín-enea tabernan euskaltzaleak biltzen ziren eta haiei entzuterako joaten nintzen. Joseba Intxausti eta Helena Baraibarrek hasi nintzen gau eskolan, Sakramentinoetan. Gero euskal filologia ikasi nuen».

FLOREN ALTUNA

AMAROZ

«Ez da erraza kalean euskara praktikatzeara»



«Urte pilo bat daromat euskara ikasten. Oso motibatuta egon naiz beti, Euskal Herri euskalduna izatea lortu nahi dugulako, euskararik gabe ez dugulako bizi nahi. Azken sei urteotan serioago hartu du, lehendabizik AEK eta orain Aitzol udal euskaltegiaren. Hala ere kostatu egiten da. Ariketak eta teoria hartzen da, baina gero kalean praktikatu egin behar da. Ez da erraza, askotan gaztelaniara jotzen dugu».

na izatea lortu nahi dugulako, euskararik gabe ez dugulako bizi nahi. Azken sei urteotan serioago hartu du, lehendabizik AEK eta orain Aitzol udal euskaltegiaren. Hala ere kostatu egiten da. Ariketak eta teoria hartzen da, baina gero kalean praktikatu egin behar da. Ez da erraza, askotan gaztelaniara jotzen dugu».

JONAN FERNANDEZ

TOLOSA

«Barnetegiak izan ziren eraginkorrenak»



«Txikitik euskalduna nintzela esaten du amak. Baina eskolan erabat galdu nuen. Oargin hasi nintzen ikasten 14-15 urterekin eta gero udan Albizturra joan ginen praktikatzera, hango haurrei eskolako lanean laguntzearen truke. Gero urte pare bat udal euskaltegiaren egin nituen, baina gehienbat barnetegietan ikasi nuen: Abaltzisketan AEKn, Leitzan IKA eta Arantzazun Ilazki euskaltegiarekin. Horiek izan ziren eraginkorrenak. Euskal Herriari bizi garelako eta gure hizkuntza ikasi nahi nuelako ikasi nuen».

MIREN ATXAGA

TOLOSA

«Gauko hamarretan joaten nintzen ikastera»



«Gurasoak erdaldunak dira. Ama Iruñekoa eta aita Bilbokoak, baina gerra garaian Valoniarra joan behar izan zuen. Iruñean jaio eta hazi nintzen eta euskararik gabe ezin nuela

euskalduna izan pentsatu nuen. Euskaldun kontsekuente izan behar banuen, euskara ikasi behar nuela iruditzen zitzaidan. 19 urterekin hasi nintzen Arturo Kanpion gau eskolan. Gauko hamarretatik hamaitakora joaten nintzen euskara ikastera. Bi urte egin nituen han. Gero nire kontura ikasi nuen asko, era batera edo bestera. Adibidez, Donamarian baserri batean aritu nintzen ikasten. Iruñera itzuli eta nire mailako talderik ez zegoenez, alfabetatzen taldean sartu nintzen, gutxienez haiekin praktikatu ahal izateko. Gaur egun euskara irakasle naiz».

DIEGO RIAÑO

LEITZA

«Klaseetara joan gabe ikasi dut euskara»



«Familia erdaldunekoa naiz. 13-14 urterekin lagunekin kalean hasi nintzen euskaraz egiten. Konturatu gabe, gero eta gehiago hitz egiten duzu. Bertsolaritza gustatu izan zait beti eta horrek ere lagundu dit ikasteko. Garrantzitsua da ez lotsatzea hanka sartzegatik. Arrebak eta biok berdintsu genekien, baina arrebak lotsatu egiten zen, nahiago zuen isildu eta ez hanka sartu euskaraz. Gaur egun oso gutxi daki. Pausorik handiena horixe izan da niretzat: ez lotsatzea. Euskaltegiaren behin eman nuen izena, baina klase bakarrera joan nintzen. Klaseetara joan gabe ikasi dut. Oraindik ikasten ari naiz. Pozik nago ausardia horregatik. Euskara beharrezkoa dugu, gure hizkuntza delako eta ate asko irekitzen dituelako».

IRURAKO UDALA

korrikarekin

VILLABONAKO UDALA

korrikarekin bat

EUSKARA ▶



Bi herritan aurreratu egin ziren eta horrela ostiralean Lizartzan —argazkian korrikan aritu zirenetako batzuk— eta Anoetan egin zituzten Korrika Txikiak. IÑIGO TERRADILLOS

Etorkizunera korrikan

Eskualdeko hainbat herritan ikastetxeek Korrika Txikiak antolatuta dituzte gaur eta bihar

NOELIA LATABURU
IMANOL GARCIA

Korrika Txikiak eskualdeko hainbat herri zeharkatuko ditu. Ohi denez, ikastetxeek beren ikasleentzako prestatu dituzte korrika egiteko ekitaldiak. Gehienak gaur arratsaldean aterako dira eta Altzoko ikasleek bihar izango dute beren hitzordua. Lasterketan ez ezik, beste ekitaldi batzuk ere egin-

go dituzte, meriendak eta txokolate jateak, esaterako.

Aurten eskualdetik Korrika goizaldean pasatuko da eta, beraz, Korrika Txikiak aukera ederrak dira guraso eta beste herritarrek ere parte hartzeko. Animazioa ez da faltako, haurrek berez izaten duten gogoarekin. Euskararen etorkizuna bermatuko dutenak gaurtik ari dira korrika egiten hizkuntza-aren alde.

KORRIKA TXIKIA ▶

Eskualdeko ikastetxe ezberdinek Korrika Txikiak antolatuta dituzte beraien herritan.

GAUR

Alegia. 15:00ean herriko ikastetxeetatik atera eta bertara bueltatuko dira herria zeharkatu ondoren.

Amezketeta. Zumadi eskolan hasi eta bukatuko da.

Asteasu-Larraul. 15:30ean abiatuko dira Larrauldik eta

Asteasura jaitsiko dira korrikazaleak.

Ibarra. Idoigan hasi, 17:30ean, eta Euskal Herria kaletik herriko kaleraino. Ondoren txokolatada, eta musika eskolakoak giroa alaitzeko.

Ikaztegieta. 16:30ean abiatuko dira.

Irura. Udaletxe aurretik aterako dira 15:00etan eta Ikastolan amaituko dute.

Ondoren meriendakoa.
Tolosa. Triangulotik ikastetxeetara bi korrika

aterakoa dira 15:30ean. Bat Usabal aldera joango da eta bestea Orixe aldera.

Zizurkil, Alkiza, Aduna eta Amasa-Villabona. 15:30ean hasiko dira Adunako bideturutzetik eta Villabonako plazan amaituko dute. Ondoren txokolate jatea egingo dute.

BIHAR

Altzoko. Frontoitik plazarainoko ibilbidea egingo dute, 15:50ean hasita.

IKASTAROA (KREDITU FORMATIBOA)	ORDUAK	EGUNA	ORDUETARA
Torre CNC programazioa	40	2005-04-04	18 - 21
Galdaragintza eta inbentzio geroak (HTIC)	60	2005-04-04	18 - 21
VALDE-LANERKO harremanak (Enkargatutako-antzerkiak)	40	2005-04-04	18 - 21
Presentazio eta Lan arretuen Onarria	40	2005-04-04	18 - 21
Aire egokiaren instalazio instalazioa	40	2005-04-06	18 - 21
Elektroerrotzio CNC programazioa	40	2005-04-06	18 - 21
PLC - SIEMENS Automata programazioa	40	2005-04-06	18 - 21
CAD 2D (AUTOCAD 2004) (beharriko maila)	40	2005-04-06	18 - 21
Lan arretietako eta kontrola	10	2005-04-06	18 - 21
HIDRAULIKA sistema automatizatua	30	2005-04-11	18 - 21
Onarriko estatistikak	30	2005-04-18	18 - 21
CAD 3D Modelatu eta plasmak (JANORAFIC)	30	2005-04-18	18 - 21
Soluzioak MS-MAS beste egoeretan	60	2005-04-18	18 - 21
Zizurkil, Piztegi eta Funtsak	40	2005-05-01	18 - 21
Mekanikako industriari Sagartutzea	40	2005-05-01	18 - 21
Galdaragintza eta estatistikaren Inbentzioa	40	2005-05-01	18 - 21
PLC-CAMION Automata programazioa	40	2005-05-01	18 - 21
Automatizazio elektroerrotzioak (KUALIFIKAZIOAK)	40	2005-05-01	18 - 21
Sistema automatizatua (AUTOMATIZAZIOAK)	30	2005-05-01	18 - 21
Torre CNC programazioa eta programazioa	40	2005-05-01	18 - 21
TIG Saldadura horizontal egoeran	60	2005-05-21	18 - 21
Lanaren arretietako eta kontrola	10	2005-05-21	18 - 21
Erregulazio automatizatuaren sistemak	20	2005-05-30	18 - 21

Merkatu eta informazioa: Telefonoa 943 69 11 47. Sateko ordua, 17 - 2005 TOLOSAN
E-mail: 2005@tolosaldea.com Web: www.tolosaldea.com

iragarki laburrak ▶

Kale Nagusia, 13
VILLABONA
Tel.: 943 69 68 56
mug.: 616 93 17 88



Irura. Eraikuntza berriko etxea, egongela, sukaldea, 3 logela eta 2 bainugela. Eguzkitsua. Garaje eta trastelekua. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.
Tolosa. 3 logelako pisua erdi

eraberritua. Kanpoaldera. Balkoia. Ilogailua. 41.000.000 pezeta.
Etxesagasti. 943 69 68 56.

Tolosa. Eraikuntza berria. 85 m²-ko etxea, bi terraza, garajea eta 100m²ko bokoa bainugelarekin. Giltzak irailen. Etxesagasti. 943 696856.

Zizurkil. Eraberritako pisua bi logelekin. Dena kanpoaldera. 3 balkoiekin. 33.800.000 pezeta. Etxesagasti. 943 696856.

Villabona. Eraikuntza berriko etxebizitza. 3 logela, ezinhobea. Eguzkitsua. Trastelekua. Garajea aukeran. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

Andoain. Mordenoa. Kapriboz berritua. 70 m². Argitsua. Trastelekua. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

Andoain. 104 m² erabilgarri. 4

logela, 2 balkoi. Berritzeko. Ikuspegiekin. Trasteleku. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.

Belauntza. 250 m²-ko etxe atxikia. 700 m²-ko lursaila, berria bezala. Inmo Etxesagasti 943 69 68 56.

Asteasu. Eraikuntza berriko etxe atxikia. Inmo Etxesagasti 943 69 68 56.

Alkiza. Bakarkako etxea lursailarekin. Kapriboz. Informazioa pertsonala. Inmo Etxesagasti 943 69 68 56.

Zizurkil. Bakarkako etxea. 110m²3X altuera. 2.500 m²-ko lursaila. Kokapen ona. Inmo Etxesagasti 943 69 68 56.

Eskaera handia dela eta, pisuak, bakarkako etxeak, baserriak eta nekazal eta hirigintzarako lursailak behar dira, alokairuan edo salmantan. Itxaron zerrrenda dugu.

VILLABONA ▶ POLITIKA



Herritar ugari elkartu ziren larunbat goizean Batasunaren idatziari abikimendua emateko. HITZA

Hauteskundeetan parte hartzeko eskubidea aldarrikatu dute

Villabonako Batasunak ilegalizazioaren aurka kaleratutako idatziari hainbat herritarrek atxikimendua eman diote

IMANOL GARCIA

Villabonako Batasunak azaleratutako idatziari hainbat herritarrek atxikimendua eman zioten larunbat goizean egindako elkarretaratzean. Idatzian «eskubide demokratikoen errespetua» eta ilegalizazioaren kontra azaltzen da ezker abertzaleko alderdia.

«Euskal Herrian haize berriak somatzen direnean, bakerako aukera berriak agertzen ari direnean, kezka berezia agertu nahi dugu datorren hauteskunde deialdiaren harira», azaldu du Villabonako Batasunak. «Iraganeko praktikatzat» zituzten ideien bazterketa eta pertsekuziorako «joera

dago oraingoan ere», salatu dute eta «hainbat agintarik berriki iragarri dutenaren arabera, oinarritzko eskubideak eraso nahi baitira hainbat herritarri hauteskundeetan lehiatzeko eskubidea ukatzeko asmo nabaria baitago». Edozein herritarri inongo eskubiderik ezabatzea edozein egoeratan «larria bada ere, are larriagoa iruditzen zaigu duen ideologiagatik inor bazterzea eta hauteskunde lehiarako ezgaitzea». Eskubide urraketa horrek bakerako perspektibak eta itzaropena erasotzea suposatzen duela azaldu du.

Horrela, eta datozen hauteskunde autonomikoetarako deialdian testuinguruan, «he-

rritar guztiok hauteskundeetan parte hartzeko dugun eskubidearen aldarrikapena» egiten dute, «oinarritzko eskubide unibertsala baita». Bestalde, euskal gizarteko edozein gizabanako zeinirtzi kolektibori hautagai izateko eskubidea ezabatzeko, «Gobernu espainiarreko agintarien aldetik iragarri den asmoa» salatzen dute eta «aipatu mehatxua praktikara eraman ez dadin exijitu ere». Batasunak azaltzen duenez, aldaketaz hitz egiten denean, «garrantzitsua da gogoratzea aldaketa hori gure gizartearen borondatea antolatuta eta babestuko duen akordioa lortzeko baliagarria izan behar duela».

ALEGIA ▶ GIZARTEA

Larrañaga kasuko lau «amicus curae» ukatuak

Filipinetako Auzitegi Gorenak epaiketaren berrikusketaren eskaera atzera bota du

N. LATABURU

Filipinetako Auzitegi Gorenak lau erakundeek —Madril etaartzelona Abokatuen Eskola, Abokatuen Euskal Eskola eta Fair Trials Abroad— Francisko Larrañagaren kasurako aurkezturiko *amicus curae* dokumentuak atzera bota berri ditu. Aipatu dokumentuek epaiketaren berrikuskapen bat eta, ondorioz, epaiketa berri eta «duin» bat eskatzen dute Filipinetan bizi den euskaldunarentzat.

Larrañaga gazteari —Larrañaga pilotari alegiarraren semea— heriotz zigorra ezarri zioten 2004. urtean, 1997. an bi neska bahitu, bortxatu eta hil izana egotzi ziotelarik. Duela hilabete eskas ere Larrañagaren abokatuek eginiko eskaera helegitea ere atzera bota zuen Filipinetako Auzitegi Gorenak. Abokatuen esanetan, «ezinezkoa da Francisko Larrañaga errudun izatea egun horretan 300 kilometrotara baitzen». Egoera «larri zaildu» dela jakinarazi dute.



Memoria lantzeko tailerrak

ABALTZISKETA ▶ Abaltzisketako hainbat adinekok memoria lantzeko tailerren lehen saioan hartu zuten parte igandean. Ikastaroaren gidari Moira Zeberio aritu zen eta landu zituen gaiak memoriaren definizioa, motak, faseak, fase bakoitzean eragiten duten faktorea eta hirugarren adina eta memoria izan ziren, besteak beste. Hau guztia erakusteko zenbait joko antolatuta zituzten udaletzeko gelan. NOELIA LATABURU

hitza

lagunen txokoa

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

UDABERRI DANTZARI TALDEAK martxoaren 19an antolatutako ERROMERIAKO afarian parte hartzeko aukera izango duzu

DEITU ETA HAR EZAZU PARTE AFARIRAKO 4 TXARTELEN ZOZKETAN

ZU IZAN ZAITEZKE IRABAZLEETAKO BAT! 943 65 56 95
(11:00-13:00 / 16:00-19:00)

ERROMERIA

2005/03/19

*Trikipotzea
*Afaria
*Dantzaldia:
Epeldi eta Larrañagaren

Alferrak oinarri:
Elizate, Garkano eta Elizate

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212

Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 65 23 39

Asteasu. Medikua: 69 24 23

Baliarrain. Medikua: 88 90 03

Berastegi. Medikua: 68 33 61

Bidegoian. Medikua: 68 11 34

Ibarralde. Osasun etx.: 672411

Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29

Irura. Osasun zentroa: 69 07 20

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Lizartza. Medikua: 68 20 77

Orendain. Medikua: 65 55 95

Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amaroako dispen.: 67 26 37

▶ Asunzion klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdia)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ Tolargi: 65 00 16

▶ Iurramendi egoitza: 67 03 25

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

▶ Tolosa gasa: 67 53 20

Villabona. Anb.: 00 69 70

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Leitzaran autob.: 948 221015

▶ Taxis: 67 04 20

KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04

▶ Aiurri aldizkaria: 30 07 32

▶ Txolarre Irratia: 69 80 38

▶ Karrape Irratia: 948 610914

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Santamaria, I. Nafarroa

etorbidea 2 (Tolosa).

943 65 46 10

Plaza, M. Elbarren 36 (Leitza).

112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.

tolosaldean_publi@tolosaldeko

hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aitz. 687 41 00 22.

villabona-aiztondo@tolosaldeko

hitza.info

Anoetaldea. 687 41 00 22

anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info

Ibarralde. 687 41 00 32.

ibarralde@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

Leitza. 687 41 01 18.

leitza@tolosaldeko-hitza.info

✠ ESKERTZA ▶

MARIA SALVAREDDI OLAECHEA andere hil berriaren senideen partetik, eskerrak samin agurrari bidali zenuten eta hiletan elizkizunetara etorri zineten guztioi.

Berastegi. 2005eko martxoaren 15a

ASTEBURUKO ESKUALDEKO KIROL EMAITZAK ▶

ARETO FUTBOLA

1 Maila A.
Ibarra-Ultzama 1-1

Liga Autonomikoa.
Trans. Lakuntza-Portuboa 5-5

Emakumeen ohorezko maila.
F.S.F. Mostoles-Hegoalde 2-5

Nesken Kopako Liga.
ABX Logistics-Tinta 0-4

ESKU PILOTA

GRAVN TXAPELKETA
Jubenilak.
Goikoetxea-Zabala 8-22
Ezeiza-Gorrotx./Galarza-Aldape 17-22

22 urtez azpikoak.
Alvarez-Uriarte 10-22
Renob.-Irueta/Amant.-Apraiz 22-18

Garzandia Txapelketa.
Cerezo-Huarte/Exeb.-Setien 22-11
Beng.-Ontxalo/Izag.-Zelaia 22-9
Moran-Garcia/Aspe-Mujika 22-13

FUTBOLA

Gorengo Maila.
Orioko-Tolosa CF 1-2

Saillkapena ▶	
1. Tolosa	59 puntu
2. UPV-EHU	58
3. Ordizia	54
4. Zarautz	48
5. Real Union B	48
6. Trinkerpe	42
7. Touring	38
8. Pasajes	38
9. Mondragon	38
10. Mutriku	36
11. Hondarribia	35
12. Anaitasuna	34
13. Zestoa	34
14. Aloña Mendi	32
15. Orioko	32
16. Urola	31
17. Aretxabaleta	31
18. Beti Gazte	29
19. Bergara	28
20. Oiartzun	15

Nesken Liga Igoera Fasea.
Mutriku-Tolosa 2-0

Lurrealdeko 1. Maila.

Behobia-Tolosa B 2-2

Lurrealdeko 2. Maila.
Amaroz-La Salle Hnos. Zubia 3-1
Dunboa Eguzki-Intxurre 6-0

Igoera Fasea
Danena KE-Mariño B 4-0

Jubenilen Euskal Liga.
Tolosa CF-Sporting Herrera 4-0

Jubenilen 1. Maila.
Behobia-Intxurre 6-0
Internacional-Billabona KE 1-0

Jubenilen 2. Maila.
Igoera Fasea
Mariño B-Tolosa CF 3-5

Kopa
Danena KE-Vasconia B 0-1

Kadeteen Euskal Liga.
Sporting Herrera-Tolosa CF 4-2

Kadeteen 1. Maila.
Billabona KE-Ilintxa 6-1

Kadeteen 2. Maila Igoera Fasea.
Tolosa B-Aitzgorri 6-0

Kopa.
Amara Berri B-Amaroz KE 3-0

ZESTA PUNTA

ELKARTEEN ARTEKOA

Jubenilak.
Berriatua-Beotibar 35-30

ESKOLARTEKO TXAPELKETA

Alebinak.
Goizeko Izar 2-Laskorain 0-2

ERRENDIMENDUA

Infantilak.
Beotibar-Zumaia 1 26-30

UDABERRIKO TXAPELKETA

Nagusiak.
Zumaia 2-Beotibar 1 35-15
Donostia 3-Beotibar 2 19-35

IBARRA ▶ KIROLA

Irabazteko zorian egon eta gero, Ibarrak berdindu egin zuen

Epailleak etxeko taldeak sartutako garaipenaren gola balio gabetu zuen denen harridura eta haserrerako

IÑIGO TERRADILLOS

Ibarrak berdinketa baino ez zuen lortu pasatu den larunbatean Belabietan Ultzamaren aurka. Karrera eta Aierzaren hutsuneak zituen, bajagatik jolasterik ez baitzuten izan.

Neurketa berdinduta hasi zuten biek ere gol aukera gutxi sortuz. 12. minutuan etxeko taldea aurreratu zen Cristianek sartutako golaren bidez. Hautsik erdigunean lapurtutako baloiaz baliatu zen hau, jaurtiketa indartsua egin eta sare barrura joan zen baloia. Une honetan jokoa lasaitu zuen etxeko taldeak eta erasoan aukera garbiak izan arren ez zuen zorterik izan. 1-0ekoarekin iritsi ziren atsedendaldira.

Bigarren zatian ezer gutxi aldatu zen. 5. minutuan Ultzamak berdinketa lortu zuen; epailleak zalantza izan zuen gola ontzat emateko, baina bigarren epaileari galdetu eta honek baiezkoa eman ondoren berdinketa-



1-legin zuen Ibarrak. I.TERRADILLOS

ren gola markagailura igo zen azkenean.

Ikustera joan ziren zaleek etxeko taldea animatzen zuten, eta hauek bitartean, aukerak sortuz jarraitzen zuten, baina asmatu gabe edo nafarren oztopoarekin topo eginez.

8. minutuan partidako jokaldi garrantzitsua gertatu zen; Hautsiren jaurtiketa indartsua saihestu zuen kontrako atezainak, eta airean geratu zen baloia Labakak hartu eta sare barruan sartu zuen. Etxeko taldeak gola ospatzen zuten bitartean, epailleak atezainari falta egin zitzaioela eta golak etzuela balio adierazi zuen. Ez zirudien zuzen zebilenik, ez baitzen inongo protestarik egon nafarren aldetik epailleak hura adierazi aurretik. Eta Belabietako kiroldegira joan zirenak ez ziren gustura geratu, nabaria izan zen hau entzun ahal izan ziren ohiuekin haserrialdia sortuak.

Gauzak honela, 2 puntuak alde egin zitzaizkion Ibarrari partidaren bukaerara emaitza horrekin iritsi baitziren.

Bestalde, datorren astean Ibarra areto futbol taldeak partida interesgarria izango du, derbia jokatuko baitu Donostiako UPV-EHUREn aurka.

IBARRA ▶



Indiako irudi bat. HITZA

India eta Ekuador gertu sentitzeko aukera

I.TERRADILLOS

Aste Misiolariak aurrera darrarri Ibarran. Atzoko diapositiba emanaldiaren ostean, gaur bi kristau sekular etorriko dira Ekuador eta Angolatik. Hitzordua 20:00etan da Ibarrako parrokian. Agostiño eta Zoilo kristauak bere gizarte lana aurkeztuko dute eta beraien esperientzien berri emango dute.

Bihar, berriz, Indiako sabañan laguntzen izan den eta kiropraktikako sendagilea den Joseba Agotek bisitatu du parrokiako ordu berean, bere esperientziak eta jakintzak jendaurrean aurkezteko asmoz.

LEITZA ▶ POLITIKA

Euskal preso politikoak egiten ari diren borrokarekiko elkartasun adierazpenak

Manifestazioa egin zuten igande eguerdian, preso en izaera politikoa aldarrikatu eta beren Euskal Herriratzea eskatuz; Herriko presoak gogoan izan zuten



Manifestazio isila burutu zuten herrian barrena, EPPK-ak daraman borrokaldiarekin bat eginez. JAIONE STIBIA

JAIONE ASTIBIA

Igande eguerdian manifestazioa egin zuten herriko kaleetan barrena euskal preso politikoei ilbeltzaz geroztik eta da-

goenekoz, azken txanpan sartuta dagoen txandakako itxialdien ekimenaren ildotik.

Esan bezala, EPPK-a zazpigarren eta azken itxialdia egiten ari da espetxeetan eta Igor

Astibia leitzarra txada horretan sartuta egoki, elkartasuneko ekitaldiak burutzen ari dira, Leitzan ere «preso en borrokaldi horrek dirauen bitartean». Horrela, bada, «euskal

preso politikoei duten izaera politikoa aitortu eta oinarriko eskubideak errespetatu dakizkien» eskatu zuten bildutakoek, herenegun.

Eskutitza herritarrei

Honen harira, Igor Astibia berak, preso dagoen Navalcarnero (Espainia) kartzelatik igorritako eskutitza irakurri zuten, «Aurrera euskaldunak!» izenburua jarri eta «guztiok batera, guztion artean» lan egitera dei eginez egindakoa; EPPK-ak daraman ekimenaren nondik norakoak azaldu ondoren, iazko azaroaren 16an atxilotu zutenetik berak jasan dituen eskubide urraketen kontakizuna egiten zuen eskutitzean: «Lau hilabete eskas daramat, epaiketak gabe bahituta», zioen eta oinarriko eskubideak «guzti-guztiak zapaldu dizkirate», erantsi. «komisaldegian torturatu ninduten, neskalagunaren familiarekin nituen komunikazioak murriztu dizkirate, hezkuntzarako eskubidea oinarriko ingelesa ikastera murrizten da, osasun eskubidean medikuak telepatiaz duota pastilekin konpontzen du guztia, (...) euskaraz egin deza-

kezun bakarria idaztea da eta hori traba askorekin», zehaztu jarraitzen zuelarik, aipatu eskutitzak eta une bereziki ungarriak ikusi ziren bitartean, han bildutako en artean.

Ekitaldiari bukaera *Eusko Gudariak* kantatuz eman zioten. Aurretik, ordea, beste deialdi baten berri eman zuten. Hain zuzen ere, bihar iluntzerako deituta dagoen kartzelada mugikorrera deitu zuten: 20:00etan, plazatik hasi eta kale nagusira egiten dutena, itxialdiekin bukatu eta hain justu, «EPPK-ak, 700 euskal preso politiko baino gehiagok. Aberri Egunera arte egin asmo duen gose grebaldiaren aurreneko eguna» denarekin batera.

Adierazpen eztabaidatsuek

Bestalde, Leitzako Udalak ere onartu berri du udalbatzarrean Igor lehenbailehen askatu eta etxean izan dadin eskatzen duen mozia, Igorren aldeko herritar taldeak egindako eskaerari bere atxikimena emanaz, bai banakoen sinadurak eta bai taldeen atxikimena jasotzeko abian jarri zuten ekimenari jarraituz.

Mozioaren alde bozkatu zuten talde abertzaleek eta UPN taldea berriz, abstenitu egin zen, preso «zer egoeratan dagoen» ez jakiteagatik. Bozketa baino lehen, ordea, talde horretako kide batek adierazpen gogorrek egin zituen han bilduta zegoen jendeari zuzenduta, nonbait herrian gertatu heriotz baten erantzunkizuna haiengan botaz. Bildutako en haserre eragin zuten adierazpenok eta, besteak beste bere mahaikideek ere esandakoa erretratu arazi zioten.

iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47- behea
TOLOSA
 Tel.: 943 65 50 37
 Faxa: 943 65 09 44
 e-maila: ennio@inmoennio.com
 www.inmoennio.com

Alegia. San Joan kalean 161 m2-ko azkeneko etxebizitza salgai, bi terraza ederrekin.

Berrobi. Eraikuntza berriko

etxebizitza salgai. Pisu, trasteleku eta garajearekin.

Donostia. Sagues auzoan etxebizitza salgai, igogailuarekin, eguzkitsua.

Ibarra. San Ignazio auzoan. Etxebizitza berokuntzarekin.

Ibarra. Eraikuntza berriko 2 logelako etxebizitza salgai, garajea aukeran.

Ikaztegieta. 6 etxe abikien eraikuntza berria. Informazio pertsonala.

Irura. Ibai aldera. 3 logela eta bi bainugela. Trasteleku eta garajearekin. Ezin hobeto.

Irura. Borda ikusgarria, ikusteko modukoa!!!

Legorreta. Pisu merkea, 3 logelarekin, sukaldea, egongela, eta bainugela (berritua). Berokuntza. 142.440 euro!!!!

Tolosaldea. Eraikuntza berriko etxe bifamiliar zoragarria salgai. Portxe eta lorategiarekin. Ikusgarria!!!

Tolosa. Alde Zaharrean hainbat etxebizitza salgai 142.440 eurotik aurrera.

Tolosa. San Esteban auzoa. 3 logela. Oso eguzkitsua. Dena kanpoaldera. Berokuntzarekin.

Tolosa. Amaro auzoan oso egoera onean dauden etxebizitzak eta berritzeko daudenak salgai.

Tolosa. Belate. 3 logela eta 2 bainugela. Berritua.

Tolosa. Erdialdean. 130 m2-ko etxebizitza salgai. 4 logela (bat bulego bezala egokitua).

Estreinatze, guztiz berritua izan ondoren.

Tolosa. Foruen etorbidean guztiz berritutako etxebizitza salgai. Ikustekoa!!!

Tolosa. Nafarroako etorbidean guztiz berritutako 3 logelako etxebizitza salgai berokuntzarekin.

Tolosa. Pablo Gorosabel. 12 urte

dituen eraikuntza, pisu altua, igogailu eta berokuntzarekin, garajea aukeran.

Tolosa. Iurre. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Oso egoera onean.

Tolosa. Larramendi. Orain dela gutxi eraikuntza. 2 logela, sukaldea, egongela eta trasteleku.

Tolosa. Berokuntza. Ezin hobeto.

Tolosa. Larramendi. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Igogailua.

Tolosa. Santa Klara. 111 m2-ko etxebizitza ederra, igogailuarekin. 4 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Ikusmen ederrak.

228.385 euro.

Tolosa. Agintari kalea. Eraikuntza berriko etxebizitza. 3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela.

Trasteleku eta berokuntzarekin. **Tolosa.** Trinkete. 3 logela eta bi

bainugela. Egongela ederra. Ezin hobeto!!

Tolosa. Zumalakarregi, toki ezin hobean, ibai aldera bistak. 101 eta 109 m2-ko, bi etxebizitza.

Estreinatze, guztiz berritu izan ondoren. Kalitate oso onak. Igogailua eta berokuntzarekin!!!

Tolosa. San Frantzisko 46 m2-ko lokal komertziala.

Tolosa. Erdialdean oso ondo kokatuta dagoen taberna salgai.

Tolosa. Pablo Gorosabel. Taberna alokairuan.

Tolosa. Araba etorbidea. Garajea alokairuan.

Villabona. Larrea eraikuntza berriko etxebizitza salgai. Eguzkitsua.

Zizurkil. Ennio Bidea. Eraikuntza berriko etxebizitza. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela.

Trasteleku pisuan eta ganbaran. Ezin hobeto.

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko martxoaren 15a, asteartea ▶ III. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Alaitzolaia, Aizua, Albitz, Añeta, Alza, Alza, Amadeita, Anorta, Anso, Balamán, Balañta, Barazgi, Berro, Etxain, Herrialde, Ibarra, Naldagile, Nara, Lergal, Lohitza, Luriza, Orendain, Oñeta, Tolosa, Vilabona, Zuzuki
besterik: Leizaldieko Eskara Batzordea

Gipuzkoako Foru Aldundia

Eusko Jauriaritza, Kultura Saila

943

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

14

hotzena

10

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



ELURRA ARALARREN

Guardetxe: ez / bai

Albi: ez / bai

Pagomari: ez / bai

Igaratza: ez / bai

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA (zalantzak, harpide egiteko...)

943
30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Ibarra. Garagardo Azoka prestatzeko bilera 18:30ean Kultur Etxean.

Tolosa. Jose Antonio Pagolaren garizuma hitzaldiak 20:00etan Santa Maria parrokiako aretoan. Gaur eta bihar. Etzi, otoitzaldia elizan.

Tolosa. Batasunaren batzarra egoera politikoaz eta hauteskunde kanpainaz 20:00etan udal batzar aretoan. Deia egiten zaie militante eta jarraitzaileei

ZINEMA

Alegia. Comandante Oliver Stone. Gaztetxean bihar 21:30ean.

Ibarra. Alejandro Amenabarren Mar adentro. Bihar Gaztetxean 21:45ean.

Tolosa. Largo domingo de noviazgo. 19:30ean eta 22:30an Leidor zineman. Ikuslearen eguna.

Igeldoarra, eroso

TOLOSA ▶ 1.200 zaletu inguruk jarraitu zuten, herenegun, Joxe Mari Olasagastiren eta Iñaki Azurmendiren arteko aizkora apustua, zezen-plazan



Olasagasti (ezkerrean) eta Azurmendi, lehia bizian, Tolosako zezen-plazan. JON URBE / ARGAZKI PRESS

ERREDAKZIOA

Ikusmin handia piztu du Joxe Mari Olasagasti igeldoarraren eta Iñaki Azurmendi beasaindarraren arteko aizkora apustuak. Jakinminez, elkartu ziren 1.200 zaletu inguru Tolosako zezen-plazan, igandean, lehia aurrez aurre jarraitzeko. 6.000 euro zituzten jokoan. Igeldokoak aise erabazi zuen: hasierako enborretan utzi zuen erabakita apustua; lanari bizi-bizi ekinda, lehen enborraren amaieran minutu erdi pasatxo-ko aldea kendu zion Azurmendiri. Eta, amaiera arte, handituz joan zen zuloa.

Sasoi beteetan dirudi Olasagastik; uztailean izango du hurrengo lehia. Juan Manuel Erasun zizurkildarraren aurka.

AGURRAK ▶



IGOR TXAPEOAN

Zu sortu zinen enbor berezik sortuko dira besteak, burruka hortan irauzgo dugu zuhaitz ardakva gazteok. Leizalko Segi.



URTE ASKOAN

Larraitz Balerdi Guerrero (Alegia). Gaur 4 urte. Etxekoan partetik muxu bat.



URTE ASKOAN

Amale (Amaroz). Gaur 4 urte. Iker eta gurasoen partetik.



URTE ASKOAN

Leire (Ibarra). Gaur 6 urte. Zorionak gurasoen partetik eta bereziki Irati eta Maideren partetik.



URTE ASKOAN

Unai Ausin Insausti. Atzo 7 urte. Muxu handi bat etxekoan partetik.

HITZA, zorion agurren tartea
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaiberriak... zoriontzeko, etorri:
HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 behe - TOLOSA
Udalatxeko bulegoa - LEITZA
Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri.
Mila esker!



EUSKAL PRESOK GOSE GREBAN

Lehenengo eguna. Eutsi borrokarik! Dispersiorik ez! Eskualdeko Amnistiaren Aldeko Mugimendua.



URTE ASKOAN

Jon Lopetegui Arrue (Tolosa). Zorionak. Gaur 3 urte. Muxu asko aitona-amoneta eta etxeko guztien partetik.